GOI-MAILAKO ZIKLOA

TEKNIKARIA:

URAREN KUDEAKETA



Hizkuntza: elebiduna (gaztelania-ingelesa) Txanda: goizez

Lanbide-arloa:

Energia eta ura



NOLA SARTZEN NAIZ ZIKLO HONETAN?

Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko, baldintza hauetako bat bete beharko da:

a) Lanbide Heziketako erdi-mailako teknikariaren titulua edo Arte Plastiko eta Diseinuko teknikariaren titulua izatea.
b) Batxilergoko titulua izatea.
c) Heziketa-zikloan sartutako C graduko prestakuntza-eskaintza gainditu izana.
d) Hezkuntza-administrazioak berariaz baimendutako ikastetxeetan goi-mailako zikloetara sartzeko doako prestakuntza-ikastaro bat gainditu izana.
e) Sarrera-proba bat gainditu izana.
f) Lanbide Heziketako goi-mailako teknikariaren titulua edo unibertsitate-gradua izatea.

c), d) eta e) letren babesean sartzeko kasuetan, gainera, gutxienez hemeretzi urte izatea eskatuko da, proba egiten den urtean edo prestakuntza hasten den urtean beteak.

ZER JAKINEN DUT EGITEN?

Titulu honen konpetentzia orokorra da uraren erabilera eraginkorra kudeatzea, eta, horretarako, urak tratatzeko sareak eta estazioak muntatzea, zerbitzuan jartzea, ustiatzea eta mantentzea antolatu eta garatzea, instalazioen nahiz uraren kalitate-eskakizunak eta indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen laneko arriskuen prebentziorako eta ingurumen-babeserako neurriak aplikatuta.

ZERTAN LAN EGINEN DUT?

♦ Ura hornitzeko eta banatzeko sareak muntatzeko arduraduna.
♦ Saneamenduko sareak eta instalazioak muntatzeko arduraduna.
♦ Ur-sareen mantentze-lanetako arduraduna.
♦ Saneamendu-sareen mantentze-lanetako arduraduna.
♦ Hornidura-ura tratatzeko instalazioko operadorea.
♦ Hondakin-urak tratatzeko instalazioko operadorea.
♦ Uraren erabilera eraginkorra kudeatzeko teknikaria.
♦ Ura banatzeko sistemetako teknikaria.





ZER IKASIKO DUT?

Formazio DUALA

Iraupena: 2000 ordu

			Orduak	Saioak
1º	PREP	Plangintza eta zuinketa	160	5
	CTA	Uren kalitatea eta tratamendua	160	5
	CRA	Ur-sareak konfiguratzea	160	5
	SEA	Sistema elektrikoak ur-instalazioetan	135	4
	TMIA	Ur-instalazioak muntatzeko teknikak	135	4
	INGn	Ingeles profesionala	70	2
	DASn	Digitalizazioa ekoizpen-sektoreei aplikatuta	40	1
	SASn	Jasangarritasuna produkzio-sistemari aplikatuta	40	1
	IPE In	Enplegagarritasunerako ibilbide pertsonala I	100	3
2º	TCR	Komunikazio- eta harreman-teknikak	70	2
	GEA	Uraren kudeaketa eraginkorra	160	5
	AyT	Automatismoak eta telekontrola ur-instalazioetan	200	6
	ORIA	Ur-sare eta -instalazioetako eragiketak	230	7
	GOCM	Eragiketen kudeaketa, kalitatea eta ingurumena	100	3
	IPE IIn	Enplegagarritasunerako ibilbide pertsonala II	70	2
	PRIn	Uraren kudeaketa eraginkorrerako modulu arteko proiektua	70	2
		Aukerako lanbide-modulua	100	3


INFORMAZIO GEHIAGO

Heziketa-zikloaren orrialde ofizialerako esteka TodoFP atarian



Lanbide-ziurtagiria (C maila)

Gaitasun-ziurtagiria (B maila)





ETA IKASTEN JARRAITU NAHI BADUT?

Ziklo hau gainditu ondoren, honako hauetara sartu ahal izango zara:

♦ Goi-mailako beste prestakuntza-ziklo batzuk

♦ Graduko unibertsitate-tituluak lortzera bideratutako irakaskuntzak

Lanbide heziketa eta graduko unibertsitate-ikasketen arteko baliozkotzeak errazteko, 120 ECTS kreditu esleitzen zaizkie Foru Dekretuan ezarritako irakaskuntzei, lanbide-moduluen artean banatuta.

Hori guztia indarrean dagoen araudiaren onarpen-baldintzen arabera.

HEMEN AURKITUKO GAITUZU



C/Aduana, s/n, 31119
Imarcoain.Navarra
www.cenifer.com

Kontaktua:
Atezaintza 848431380